

BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS

ARRAUNA

2022

• OARSO BIDASOKO •
HITZA

Argazkia: Ane Mendizabal Sarriegi



Bisita itzazu gure webguneetako 2022ko arraunaren atal bereziak

Oarsoaldeko eta Bidasoko eskualdeetako arraunari buruzko albistek eta argazki galeriak

Herrietako taldeen traineruen zerrenda eta argazkiak

HITZAren 2022ko Arraun Gida deskargatzeko aukera



oarsoaldea.hitza.eus/arrauna2022/
bidasoa.hitza.eus/arrauna2022/

Adi! Aurten ere irailean Kontxako estropadaren porra antolatuko dugu sari bikainekin

HITZA | ALBISTEAK | AGENDA | ESKAINTZAK | DENDA | ZOKETAK | MULTIMEDIA |

Albistek

Traineruak

Arraun gehigarria

Albistek

Hondarribia Kirola

Hondarribia eta Orio Gipuzkoako txapelkun

Igandean Gipuzkoako hogeita lau traineruk parte hartu zuten Hondarribian jokatu zen txapelketan. Eguraldi nahasi bezain aldakorra izan zuten arraunlariek.

2022/06/13 Ane Mendizabal Sarriegi

Oarsoaldea Kirola

Oarsoako traineruak Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute asteburuan

Igandean Gipuzkoako Traineru Txapelketa jokatu zen Hondarribiko uretan. Eguraldia nahasia bezain aldakorra izan zuten arraunlariek.

2022/06/13 Ane Mendizabal Sarriegi

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Eskarmentu handiko taldea da Hondarribiko gizonen traineru nagusia. Urte asko daramatzate gauzak behar bezala egiten. Urterik urte aurreneko postuetan aritzeko lehia es-tuago doa eta irabazteko hautagaien artean izatea garaipen bat da, ez baita lan erraza. Hala aitortu du Mikel Orbañanos entrenatzaileak. Aurten, ordea, lau baja garrantzitsu izan dituzte, eta beraz, B ontziko gazteen artean erreleboa bilatu behar izan dute, Hondarribia Arraun El-kartearen filosofiari jarraiki. Denboraldi honetarako helburua, aldaketetara ondo egokitzea eta kide berrien eta emaitzen arteko «oreka» bilatzea izango dela azal-du du Orbañanosek. Noski, azken urtee-tan bezala, Eusko Label Ligan bizirik mantendu nahi dute, eta lehenengo pos-tuetan lehiazteko aukera baldin badute, bandera batzuk irabaztea ere.

Neguan zehar bigarren aritu dira jai-tsierra gehienetan, eta hilabete honetan



Goian gizonen A ontzia, eta behean, emakumeena, aurten Pasaiako estropadetan. **Josu Z.**

Denboraldi berri bat, eta aldi berean hiru erronka berri

Aurtengo sasoiaren etapa berri batean sartu dira Hondarribia Arraun Elkarteko hiru traineruak. Nor bere mailan, erronka berri horiei aurre egiteko indarrez daude berdeak. Emaitzak iristen hasi dira jada.



**IRUBI
TAILERRAK**

Multimarka tailerrak
VW, SEAT, AUDI, SKODA
eta pneumatikoetan
espezialistak

Talaia poligonoa E 12. - Oiartzun
Tel.: 943 26 13 25 . Faxe: 943 26 13 26
mecanicairubi@gmail.com
www.mecanicairubi.com



amets sukaldeak

sukalde eta bainugela estudioa

hartu olatua!

dica. banatzailea
www.dica.es



Zubitxo 15, behea
20100 Lezo
t. 943 341678

ametsukaldeak@gmail.com
www.ametsukaldeak.com

Gipuzkoako txapeldun izan dira Hondarribiko uretan. Emaizta horiekin kementa jaso dute arraunlariek, «indar berezi bat behar da, eta alde psikologikoa oso garrantzitsua da kirol honetan». Emaizta on horiekin eta taldean duten giro onarekin egunerokotasunean gustura dabilta. Denboraldia hasteko «gogotsu» daude arraunlariak. Uztailaren 2an Bilbon hasiko dute Eusko Label Liga.

EMAKUMEAK

Iker Cortesek gidatutako taldeak zapore gazi-gozaarekin bukatu zuen iazko denboraldia. Nahiz eta udara polita egin eta EuskoTren Ligako lau traineruen arteko lehia *estuagoa* izan, maila galdu zuten. Aurten ETE Ligan arituko dira. Hasiera batean, horrek taldearengan eragina izan zuela aitortu du Cortesek, «kolpe gogorra» izan baitzen. Hala ere, atzera begirata onuragarri izan daitekeela uste du sestaotarrak. Azken lau denboraldietan laugarren postua ekiditeko zamarekin izan dira, eta hori oso gogorra dela adierazi du. EuskoTren Ligatik jaitsi izanak «ikasten eta hobetzen» jarraitzeko balio izan die. Joan den asteburuan Pasaiaiko uretan hasi zuten ETE Liga, eta garaipena eskuratu zuten. Helburua argi du Cortesek: EuskoTren Ligara zuzenean igotzeko txartela eskuratu nahi dute. Beraz, bidea norabide egokian egiten hasi dira berdeak.

GIZONEN B TRAINERUA

Joan den urtean udara txukuna egin ondoren play-offean KAE1 Ligara igotzea lortu zuten gizonen B eskifaiakoek.



Gizonen B ontziak KAE1eko lehen estropadan hirugarren egin zuen. **Josu Z.**

Azken hau, «sorpresa» izan zela onartu du Gonzalo Carrion entrenatzaileak. Lehenengo urtea izan zen Carrion [A ontziko arraunlari ohia] entrenatzaile gisan aritu zena, eta oso pozik agertu da iaz egindakoarekin, «zoragarria izan zen». Udara polita bizi ondoren, arraunlarien erdiak taldea utzi izanak ezustean harrapatu zuen entrenatzailea, ordea. Dena den, talde mugatua izan arren, aulki mugikorretik igotako sei gazte batu zaizkie taldera, eta oso ondo egokitu dira, gainera. Aurtengo B taldea bereziki gaztea izango da, baina ilusioa ez zaie falta. Liga berrian borrokatzera eta batez ere egiten ari diren lanaz disfrutatzen irtengo dira. Joan den asteburuan hasi zuten KAE1eko Liga: hirugarren izan ziren. ✕

ETE LIGA



Ane Azpiroz
18 urte. Hondarribia.



Irati Camarero
19 urte. Hondarribia.



Intza Fernandez
25 urte. Lasarte-Oria.



Jule Arkotxa
18 urte. Lekeitio.



Maider Peñalva
22 urte. Gasteiz.



Katalin Negrete
17 urte. Lekeitio.



Maddi Olaskoaga
22 urte. Hondarribia.



Irati Gaztelumendi
20 urte. Lezo.



Maider Perez
25 urte. Hernani.



Jasone Mitxelena
26 urte. Oiartzun.



Amaia Olazabal
20 urte. Hondarribia.



Nerea Itsaso
21 urte. Donostia.



Eneritz Martiarena
20 urte. Irun.



Miren Garmendia
23 urte. Hernani.



Iraia Mendizabal
21 urte. Hondarribia.

Hondarribian euskaraz bizi

Hondarribiko Udala

HONDARRIBIAN
EUSKARAZ



Ane Mendizabal
24 urte. Hondarribia.



Itsaso Goikoetxea
19 urte. Hondarribia.



Helene Sagarzazu
19 urte. Irun.

Entrenatzailea: **Iker Cortes**

EUSKO LABEL LIGA



Ioseba Amunarriz
43 urte. Hondarribia.



Xabier Etxebeste
42 urte. Zarautz.



Alexander Udabe
38 urte. Usurbil.



Manex Aldai
32 urte. Hondarribia.



Jon Lizarralde
40 urte. Tolosa.



Iñigo Jokin Sagarzazu
30 urte. Hondarribia.



Galder Ezponda
30 urte. Hondarribia.



Beñat Egiazu
28 urte. Hondarribia.



Urko Redondo
35 urte. Orio.



Bikendi Alza
29 urte. Hondarribia.



Ibai Camarero
22 urte. Hondarribia.



Battit Ondikola
27 urte. Donibane Lohizune.



Alain Osanbela
37 urte. Donostia.



Jon Etxaniz Eizagirre
27 urte. Azpeitia.



Gaizka Gorostiaga
28 urte. Getaria.



Eneko Iridoi
21 urte. Hondarribia.



Beñat Alkain
21 urte. Hondarribia.

Entrenatzailea: **Mikel Orbañanos.**

KAE1 LIGA



Beñat Alkain
21 urte. Hondarribia.



Kepa Altuna
21 urte. Hondarribia.



Telmo Bald
21 urte. Irun.



Gonzalo Bueno
26 urte. Hondarribia.



Gonzalo Carrion
45 urte. Hondarribia.



Mattin Colas
19 urte. Hondarribia.



Ioritz Errezola
23 urte. Hondarribia.



Xabier Herrador
19 urte. Irun.



Iker Huarte
19 urte. Hondarribia.



Eneko Iridoi
21 urte. Hondarribia.



Xabier Irigarai
21 urte. Hondarribia.



Borja Jorge
34 urte. Hondarribia.



Aimar Kanpandegi
19 urte. Hondarribia.



Eneko Larruskain
19 urte. Hondarribia.



Unai Lekuona
21 urte. Hondarribia.



Martin Muñoz
19 urte. Hondarribia.



Xabier Olaskoaga
19 urte. Hondarribia.



Jon Pascual
20 urte. Hondarribia.



Xabier Salaberria
19 urte. Hondarribia.



Gorka Sanchez
23 urte. Irun.

Entrenatzailea: **Gonzalo Carrion**



Aupa

Hondarribi!

www.restaurantehondar.com
Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 83



Matteo JATETXEA

Egunero irekita.

Bazkariak 13:00etatik aurrera.

Taberna 11:00etan irekitzen dugu.

Iurrita bidea, 2 behea. Ugaldetxo.
20180 Oiartzun
Tel.: 943 49 11 94
info@amoralpuchero.com



www.amoralpuchero.com



943 49 11 94



667 713 584





Gipuzkoako Traineru Txapelketan aritu ziren hilaren 12an bi traineruak. **Josu Z.**

Hibaikako neska-mutilak, gora begira jartzeko prest

EuskoTren Ligara igotzeko ametsa dute emakumeek aurten, play-offgatik borrokatuko dute. Iazkoa hobetzeko erronka dute mutilek.

IMANOL SAIZ GOMEZ DE SEGURA

Iusioz ekingo diote denboraldi berriari Hibaikako traineruek. Iñaki Mendizabal nesken entrenatzailea oso pozik dago aurten ETE Ligan lehia-tzeko osatu duten taldearekin. Lau baja izan dituzte, inkorporazio berri bat, eta Gazte Mailako hiru neska igo dira. «Kontent nago taldearekin, iazko antzeko sentsazioekin». Iaz bi bandera irabazi zituzten, eta aurten emaitza horiek berdindu edota gainditu nahi dituzte neskek. Hasieratik txanda onak egin nahi dituzte, ahalik eta bandera gehien lortzeko. «Iaz oso maila ona eman genuen. Ea hori hobetu eta EuskoTren Ligari begira jartzeko gai garen. Ez da erraza izango». Aukerarik balego, Kontxako ohorezko txandan egon nahiko luke Mendizabalek, hori dute amets. Oso ondo hasi dute sasoi, igandeko ETEko lehen estropadan hirugarren izan baitziren.

Mutilak, aldiz, KAE2n ariko dira aurten. Josetxo Arrizabalaga entrenatzailea pozik dago taldearekin. Dena den, esan du azarotik zailtasunak izan dituztela trainerua betetzeko, hil «gogorak» izan direla aitortu du. Halere, azken bi hila-beteetan taldea egonkortu dela dio, bost taldeetatik utzitako arraunlariak jaso baitituzte. «Orain egunero goaz uretara».

Helburua azken urteetako emaitzak hobetzea dute, eta bereziki taldea pixkanaka egonkortzen joatea. «Orain arte egin ditugun estropadetan hor ibili gara, aurreko aldean, sentsazio onak ditugu, ea aurreneko lauen artean sailkatzeko aukera dugun». X

ETE LIGA

-  **Ane Aiestaran**
18 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Claudia Armora**
20 urte. Tarragona.
-  **Enora Hernandez**
17 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Garazi Arabiotorre**
18 urte. Hernani.
-  **Goiatz Iza**
17 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Ihintz Larrañaga**
17 urte. Hernani.
-  **Inge Ugarte**
21 urte. Donostia.
-  **Itsaso Murcia**
20 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Izaro Prieto**
17 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Joana Brun**
17 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Jone Pastor**
19 urte. Hernani.
-  **June Galardi**
21 urte. Oiartzun.
-  **June Mikeo**
20 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Laia Urretabizkaia**
18 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Laura Carracedo**
18 urte. Redondela.

-  **Lisa Mancebo**
20 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Maddi Insausti**
20 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Naiara Orobengoa**
21 urte. Oiartzun.
-  **Nerea Deobarro**
18 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Nerea Orena**
41 urte. Donostia.
-  **Nora Urbe**
16 urte. Hernani.
-  **Uxue Rodriguez**
21 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Zuriñe Alberdi**
28 urte. Pasaia.

Entrenatzailea: **Iñaki Mendizabal**

KAE2 LIGA

-  **Adur Ferradas**
19 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Aitzol Tolosa**
22 urte. Pasaia.
-  **Alex Badiola**
28 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Alex Ostolaza**
22 urte. Zarautz.
-  **Ander Martin**
23 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Ander Mediavilla**
47 urte. Irun.

-  **Ander Urtasun**
36 urte. Donostia.
-  **Aratz Bergara**
30 urte. Pasaia.
-  **Asier Sanchez**
41 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Eneko Manterola**
19 urte. Orio.
-  **Gaizka Ormazabal**
39 urte. Lasarte.
-  **Gorka Ibarluzea**
42 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Ignacio Aizpurua**
25 urte. Andoain.
-  **Igor Muñoz**
21 urte. Donostia.
-  **Javier Erro**
27 urte. Iruña.
-  **Jon Morillo**
23 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Jon Torres**
33 urte. Oiartzun.
-  **Raul Brion**
34 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Santiago Magariños**
38 urte. Iruña.
-  **Sergio Calavia**
23 urte. Segovia.
-  **Sergio Corrales**
32 urte. Alicante.

Entrenatzailea: **Josetxo Arizabalaga**



AUPA HIBAİKA!

samar
ADMINISTRAZIOAK

Biteri 43, behea. Errenteria-Orereta
943 503 224 - 688714 314
samar.admon@gmail.com



taberna

Aupa Orio eta Hibaika!

Gamon Zumardia • 943 522 862 • Orereta

ERIK SALAZAR

San Pedro prest dago aurreko astean hasi zen KAE1eko denboraldiari kosk egiteko. Zuzendaritza guztiz eraberrituta, hurrengo hilabeteetako erronkak gogotsu gainditu nahi ditu kirol elkarteak. Momentuz, moreek ondo hasi dute uda. Izan ere, aurreko igandean Pasaiaiko badiian bertan jokatutako Kepa Deun Arrantzaleen Kofradiaren XXII. Ikurrina eskuratzetik gertu ibili ziren sanpedrotarrak. Egun horretan eskuratu zuten bigarren postuak aurrera jarraitzeko indarra eman die. Segundo eta erdigatik ez zuten irabazi moreek sasoiko lehen bandera, non eta etxean.

Itxaropentsu daude Asier Carballeda entrenatzailea eta Xabier Isasa presidentea. Proiektu berria abiatu dutela dio Carballedak, eta taldearen gaztetasuna nabarmendu du. Eskerrak eman dizkio zuzendaritza berriari harengan jarri duten konfiantzagatik, eta aro berrirako gogoz dagoela azaldu du, betiere aurretik egindako lana aitortuz.

Aurtengorako erronkei buruz galde-tuta, jardunaldiz jardunaldi pixkanaka goranzko joera mantentzea da entrenatzailearen asmoa. Helburua KAE1eko ohorezko txandan izatea dela azaldu du. Behin hori lortuta, hurrengo pausoa Carballedaren ustez, apurka-apurka banderak irabaztea izango litzateke, eta, ahal bada, liga bera irabaztea. Eusko Label Ligara igotzeko play-offa gainditzea ere gustatuko litzaike: «Tarte handia dugu play-offa irabazteko. Askoz erra-



Bigarren izan zen 'Libia' ontzia igandean, etxeko estropadan. **Josu Z.**

Helburua lortzeko urrats guztiak sendo egiteko asmoz

Kirol nahiz zuzendaritza esparruan aro berrian da Sanpedrotarra Arraun Elkarte. 'Libia' traineruak ederki hasi du KAE1eko sasoia, eta helburua igoerako play-offean jarrita dute klubaren arduradunek.



**KEPA DEUN
ARRANTZALEEN KOFRADIA**

San Pedro tra ka tra!!!

San Pedro, 14 / 943 39 63 40

Faxa: 943 39 63 43 / admin@kofradiapasajes.com



KAE1 LIGA

-  **Oinatz Amado**
20 urte. Donostia.
-  **Gabriel Bedia**
42 urte. Pedreña.
-  **Iosu Beristain**
26 urte. Pasaia.
-  **Asier Carballeda**
42 urte. Pasaia.
-  **Amos Francesco Cobzaru**
19 urte. Pasaia.
-  **Unai Del Rio**
22 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Ion Fidalgo**
41 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Nabil Haimane**
25 urte. Tolosa.
-  **Ander Iriarte**
36 urte. Donostia.
-  **Gabriel Izagirre**
20 urte. Oiartzun.
-  **Jon Jauregi**
22 urte. Andoain.
-  **Unai Martin**
21 urte. Donostia.
-  **Imanol Olasagasti**
21 urte. Aduna.
-  **Gorka Olasagasti**
28 urte. Aia.
-  **Oier Otegi**
19 urte. Asteasu.
-  **Aitor Portela**
24 urte. Errenteria-Orereta.

-  **Jokin Rodriguez**
23 urte. Donostia.
-  **Mañel Salbarredi**
21 urte. Berastegi.
-  **Aimar Santiago**
18 urte. Pasaia.
-  **Iñigo Tamariz**
23 urte. Pasaia.
-  **Mikel Txintxurreta**
24 urte. Pasaia.

Entrenatzailea: **Asier Carballeda**

zagoa da behetik datorrena gora igotzea, alderantzizko kasuan higadura handiagoa delako».

GORA BEGIRA, BAINA ADI

Xabier Isasak bat egin du entrenatzaileekin: «Azpitik berregituratu nahi dugu kluba. *Libia*-n ez dago hainbesteko aldatarik, baina azpian dauden ontzietan bai. Arraunlari gazteak bultzatu nahi ditugu». Arraun elkarteak sendotu nahi du Isasak, eta horretarako, *Libia*-z aparte, beheko kategorietan dauden infantil, kadete eta gazteengan indarra jarriko dute: «Helburua *Libia* mantentzea da, baina azpiko kategorietan dauden arraunlariak zaindu behar ditugu, etorkizunean gorako jauzia egiteko aukera izango dutelako». Zuzendaritza berriak abiarazitako aldaketa guztiz estrukturala izan dela azaldu du Isasak, izenen aldaketa batera mugatu ez dena.

Helburuei dagokienez, Carballeda entrenatzaileak nabarmendu duenaren il-dotik hitz egin du Isasak. Sintonia dago kirol zuzendaritzaren eta agintarien artean. KAE1eko ohorezko txandan egotearen nahia berretsi egiten du Isasak. Edonola ere, arraun elkartearen helburuak ez ditu soilik zerbaitetara mugatu nahi presidente berriak: «Emaitzak inportanteak dira, baina garrantzitsuago dira motibazioa eta lehiakor izatea».

Igoerako play-offaren aukeraz tentuz hitz egiten du presidenteak: «Eusko La-belekoa maila oso altua da. Prestaketa estropadetan ikusi dugu maila ona dagoela». Pausoz pauso egin nahi dute bidea, eta irailera begira fisikoki eta mentalki prest egotea dute helburu. Isasak zail ikusten du balizko play-offa, baina ez du itxaropena galdu nahi. Hala ere, zailtasunak klubarentzat erronka direla jakinarazi du.

Horretarako, afizioaren babes beharrezko dutela oroitarazi du: «Gu zuzendaritzan gaude, baina oso-oso garrantzitsua da jendea klubaren inguruan mantentzea. Horixe da luzatu nahi dugun mezua. Azken bi urteetan jende asko gerturatu da laguntzera, eta hori modu positiboan baloratu nahi dugu. Hori transmititu nahi diogu herriari eta sanpedrotar sentitzen denari». X

WALDAKETA
Psikogunea

PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZA

HAURRAK-NERABEAK
HELDUAK-BIKOTEAK

- Olatz Elizondo Cuñado - Psikopedagogo
- Maite Elizondo Cuñado - Psikologoa

Luis Mariano 4- 1.B - 20302 IRUN
943 631 572 - 664 422 440

Sanpedrotarra
ARRAUN ELKARTEA

   

  



Mikel Aia, hark egindako estropuak eskuan bere etxeko balkoian. U. Etxebeste

Sokak ondo jartzea baino gehiago

Mikel Aia irundarrak traineruentzat eta beste hainbat ontzirentzat estropuak egiten ditu. Arraunlari zenean ikasi zuen horiek egiten. Ehunka eskaera erantzuten ditu urtero-urtero.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA IRUN

Traineruak azkar joan daitezten kontuan hartu beharreko arlo asko daude. Nola ez, kirolarien prestaketa bai indibidualki eta talde bezala ezinbestekoa da ontziek itsasoa egoki zeharka dezaten. Baina badira materialarekin (traineruak, arraunak...) harremana duten aldagaiak, detaileak askotan, segundoak irabazteko aukera ematen dutenak. Horien artean daude estropuak. Mikel Aiak (Irun, 1974) ongi aski daki hori. Estropuak egiten dizkie hala eskatzen dioten guztiak. Estrapu Estrobo marka harena da, aski ezaguna arraunlarien artean. Oaso Bidasoko traineru askotan hark egindako estropuak dituzte, baita Gipuzkoako, Bizkaiko, Kantabriako edo Galiziako klubek ere. Harago doa, ordea, *hobby*-tzat duen afizioaren mugez zerrenda: Herrialde Katalanetatik nahiz Andaluziatik ere eskatzen dizkiote.

Erraza dirudi estropu bat egitea. Hamar bat minutuan egin dezake bat irundarrak. Ez saiatu etxean; gaizki aterako da. Aiak duen eskarmentua ez du inork: «Saiatu naiz jendeari azaltzen nola egin estropuak. Baina hasi, eta ezinean ibili dira». Traineru, trainerilla, batel, llagut eta faluchoetarako (Mediterraneoko ontziak azken biak), nahiz jabega ontzientzat (Andaluziakoak) estropuak egiten aditu faktoriatzat duen etxeko sukaldean. Urtean 500-600 bat, kontaketa azkar batean. Ontzi horietako toleteek neurri zehatz bat dutela adierazi du, ontziaren ezaugarrien arabera. Estro-

Abante
boga!

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Irunen eta Beran

943 63 45 36

aurkituko gaituzu

www.goieko.com

puaren diametroa da erreferentzia, zehazki, toletearen alderik estuena da Aiak behar duen neurria estropu egokia egiteko.

«1994an hasi nintzen arraunlari bezala Santiagotarrak Kirol Elkartearen. 1993an atera zuten lehenengoz traine-rua. Anaiak eta lagunek konbentzitututa hasi nintzen arraunean. Klaudio Izagirre Otxote entrenatzaileak egiten zizkigun orduko hartan estropuak astia zuenean. Baina aspertu zen. Estropuak egiten ikasi behar genuela esan zigun, eta nik eta besteren batek horiek egiten ikasi genuen». Gerora entrenatzailez aldatu zuten, Martxel Mitxelena jarri zen Santiagotarrak-en traineruaren agintean Iñaki Mendizabalekin. «Otxote ez zegoenez, estropuak egiten hasi nintzen nirekin arraun egiten zutenentzat. 1999an-edo izan zen hori. 2000. urtean utzi nuen arrauna nik, eta 2004an jende faltagatik Santiagotarrak-ek ez zuen trainerua atera. Estropuak egiteari utzi nion, ez zizkidan inork eskatzen».

Tarte horretan, alaba gaixotu egin zitzaion, eta 2008an jada dezente osatu zenean, «arraun egin beharra daukat» esan zion emazteari Aiak. Oriora joan zen. «Orio zalea naiz. Banekien ordezkoren ordezkotako izango nintzela han. Igual zitzaidan. Han bakoitzak bere estropuak egiten zituen, nik, noski, neureak. Ez nuen taldean jarraitzerik izan, ordea; Trintxerpera utzita joan nintzen. Han ere estropuak egiten hasi nintzen niretzat eta taldekideentzat, eskatzen zizkidatelako». Trintxerpe eta arrauna utzi, eta estropu eskaerak ez ziren eten.



Askotariko estropuak egiten ditu irundarrak. 'Hobby'-tzat du lan hori. Mikel Aia

Baina 2015eko irailean iritsi zen inflexio puntua: «Estropadak bukatu ziren. Telebistan deus ineteresgarririk ez zegoen larunbat batean, aspertuta, posta elektronikoko helbidea eta Facebook orrialdea sortu nituen, azken hau Estrapu Estrobo izenekoak». Orain, ia 4.400 lagun ditu sare sozial horretan, gehienak arraunarekin lotura dutenak, Kantaurikoak izan, Mediterraneoeko herrialdeetakoak, edo Andaluziakoak. «Eskaera gehiago jasotzen hasi nintzen. Ingurukoak, Kataluniako jendearenak, valentziarrenak...».

ZEHARKAKO IRABAZLE

Nylonezkoak egiten ditu gehienbat estropuak Aiak, baina baita nylona eta espartzua uztartzen dituztenak ere. Azken horiek egiteko zailago direla adierazi du irundarrak. Koloreak, nahi direnak hauta daitezke. «Adibidez, bularreko minbi-

ziaren kontrako Alacanteko elkarte batek, emakumeen bularraldea indartzeko arraun irteerak egiten dituenak, nire estropuak erabiltzen ditu, eta kolore askotakoak dira. Rema Vida du izena elkar-teak». Elkarte horren ikur bihurtu dira irundarraren estropu koloretsuak.

Kontxak irabazi ditu Mikel Aiak. «Nik? Bai zera!». Arraunean ez, baina hark egindako estropuak erabili dituzten arraunlariak bai. «Ezin uka ilusioa egiten didala traineru honek edo besteak nik egindako estropuekin garaipenak lortzen dituela ikusteak. Baina nire lana ez dut uste funtsezkoa denik bandera bat irabazterako orduan. Arraunlariena da lana. Nik bakarrik horren puska txiki bat jartzen dut. Arraunak gauza asko eman dizkit, lagun asko, eta oso gustuko dut mundu hau. Kirol honekin harremana izaten jarraitzeko aukera dut estropuak egiten». ✕

JAKIN S.L.

AHOLKULARITZA
ASEGURUAK
ERA GUZTIETAKO
GESTIOAK

→ www.jakinservicios.com ←

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa . Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxe: 943 51 60 04

OLAIA GERENDIAIN

Ez da gauza berria: sasoitik sasoir aaldaketak egon ohi dira arraunlarien plantilletan; are eta nabarmenagoa da hori klub txikien kasuan. Horietako bat da San Juan-Koxtape. Errealitate gordin horren berri eman zuen, iaz, gizonen ontzi nagusiaren entrenatzaile den Endika Zalduak; iragan den denboraldian arazo nagusia baliabide handiagoko taldeen fitxaketak izan ziren, horien ondorioz zenbait eserleku hutsik gelditu baitziren pasaitarren ontzi historikoan. Aurtengoan, orde, arraunlarien kontziliazio zailtasunak aipatu ditu prestatzaileak: «Askok lanagatik zaila zuten eguneroa eta arrauna uztartzea». Horrek, hein batean, iazko abiapuntura bueltarazi ditu arrosak: talde gaztea dute.

«Iaz, denboraldirako markatutako helburuak bete genituen», azaldu du arduradunak, «talde berria eta gaztea genuen, eta horiekin lortu genuen nahiko oinarri ona izatea; gertatzen dena da aurtun ere bajak izan ditugula, eta horiek betetzeko etorri direnak gure harrobiko gazteagoak dira». Gauzak horrela, joan den denboraldi hasieran bezain talde gaztea, edo gazteagoa, dute orain. KAE1 Ligako lehen estropadan, joan den igandean, laugarren izan ziren arrosak.

Egun prestatzaile dena aurretik arraunlari izandakoa ere bada, eta eskarmentu onez daki taldea «bloke batean» mantentzen ez bada zaila dela indarrak batu eta erritmo onean hobetzen joatea. Hori horrela, eta eranste berriekin, uste



Erreka ontzia, 2022ko Gipuzkoako Traineru Txapelketan, Hondarrribian. **Josu Z.**

Talde gaztea badute ere, banderen bila sanjuandarrak

Ontzi bakarra uretaratuko du aurtengoan San Juanek, gizona. Iazko plantilla ezin izan dute mantendu, eta beraz, «talde gaztea» izango dute aurtengoan ere. 'Batelerak' ontzia lehorrean gelditu beharko da.

du «bi pauso aurrera eta bi atzera» eman dituela traineruak iazkoari so eginda. «Belaunaldi bereko arraunlarietaldetari jarraipena ematen ez badiote zaila da gora egitea».

Hori esanda ere, argi utzi nahi izan du «oso kontent» dagoela aurtun uretan izango duen taldearekin, arraunlariak ere gogotsu baitaude, eta uste du lortuko dutela sendotzea. Are: KAE1eko ohorez-

PORTUKO PILOTUAK

San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com

rk
rkasesoria@gmail.com
943114148 · 663443337
Donibane kalea, 2 behea
PASAI DONIBANE

oholkularitza asesor

| Fiskala | Kontabilitatea | Lana
| Aseguroak | Finken Administrazioa

ko txandetan lehiatzeko aukerekin ez ezik, banderarik astintzeko aukerekin ere ikusten du trainerua Zalduak. «Lehenengo postuetan ibiltzeko aukera nahiko handiak ikusten ditut».

Atzera begiratuta, sanjuandarrak uste du joan den denboraldian KAE1en, orobat, maila handiagoa zegoela. Kategoria horretan lau aldiz txapeldun izandako Getaria hartu du ahotan, besteak beste, [2021ean igo ziren, Kaikurekin batera, TKE Ligara, eta bertan egingo dute arraun, beraz, aurten].

«Itxura hartzen diot denboraldian urrunago ibiliko garela TKEkoengandik denak orokorrean», egin du apustua.

‘BATELERARIK’ EZ AURTEN

San Juan-Koxtapeko Kudeaketa Batzordeak urte hasieran eman zuen aditzera *Batelerak* ontzia ezingo dutela uretaratu 2022ko arraun denboraldian, taldea «gutxieneko berme batzuekin» osatu ezinagatik.

Bost Emakumeen Traineru Liga (egungo EuskoTren Liga), bata bestearen atzetik 2014tik 2018ra, eta urte horietan guztietan Kontxako Bandera ere eskuratu zituen emakumeen ontziak, baina aurten ETE Ligak eskatzen duen etxeko arraunlarien kupoa ezin izan dute bete, eta beraz, *Batelerak* ezingo dira aurtengo arraun sasoiari norgehiagokan aritu.

Klub arrosaren batzordeko kideak hurrengo denboraldira begira jarrita dira albistearen eman zutenetik, egoera errepika dadin ekiditeko. «Gogoz hasi gara lanean traineru arrosa lehenbailehen uretan ikusteko». ✕

KAE1 LIGA

-  **Jon Alkiza**
19 urte. Donostia.
-  **Ion Arbona**
23 urte. Pasaia.
-  **Kimetz Arbona**
19 urte. Pasaia.
-  **Imanol Arregi**
33 urte. Oiartzun.
-  **Iñigo Arzallus**
26 urte. Pasaia.
-  **Anartz Beraza**
19 urte. Pasaia.
-  **Mikel Etxabe**
20 urte. Pasaia.
-  **Ander Egaña**
25 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Igor Gomez**
40 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Egoitz Iparragirre**
19 urte. Lezo.
-  **Aritz Irigoien**
21 urte. Oiartzun.

-  **Iker Larre**
17 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Julen Larre**
20 urte. Errenteria-Orereta.
-  **Ander Makazaga**
24 urte. Pasaia.
-  **Peru Martiarena**
18 urte. Oiartzun.
-  **Unai Mitxelena**
24 urte. Oiartzun.
-  **Oier Mugarza**
23 urte. Oiartzun.
-  **Imanol Muñoz**
26 urte. Hernani.
-  **Endika Perez**
35 urte. Pasaia.
-  **Markel Perez**
19 urte. Pasaia.
-  **Asier Sanchez**
18 urte. Donostia.
-  **Beñat Urbizu**
25 urte. Lezo.

Entrenatzailea: **Endika Zaldua**



la coquine

La coquine deco *Dekorazioa eta opari bereziak*



Foruen plaza 20, Errenteria • 943 905 774 • 610325416

zatoz gure denda ezaqitzera!

ITSASOSM

BOAT RENTAL

BIZI ITSASOA GURE ALOKAIRU ONTZIEKIN





ITALMAR OPEN 17 6 PAX TITULIN



SOLEMAR 25 10 PAX PNB



EGUNA **260€**
-TIK AURRERA

EGUNA **590€**
-TIK AURRERA

+34 650 257 482 www.itsasosm.com



URKO ETXEBESTE PETIRENA

Bihar hasiko du Trintxerpe-Illunbek 2022ko traineru sasoia. KAE2ko lehen estropada izango dute jokoan Donibane Lohizunen, arratsaldean (17:30). 2014tik iaz arte lehorrean utzi zuten urdinek *Azkuene* ontzia. 2021ko sasoiaren berriz ere uretaratzea lortu, eta aro berriaren bigarren urtea izango da aurtengoa trintxerpetarrentzat. Ez da erraza izan, ordea, trainerua ligan inskribatzea, arraunlariak lortzeko lan handia egin behar izan duelako zuzendaritza batzordeak. Horri, egoitzarekin duten arazoa erantsi behar zaio: Kaiko Herreran garatzekoak diren azpiegiturengatik, euren egoitza galtzar dira, oraindik orain horren ordezkorik ez dutelarik. Bizirauteko borrokan ari dira, beraz, pasaitarrak.

Kirol arlotik, garbi dute trintxerpetarren aurtengorako helburua: ahalik eta sasoi txukunena egitea. Iaz, KAE2ko azken postuan gelditu ziren Antonio Da Silvak entrenatutakoak. Beraz, aurten hori hobetzeraz joango dira. Jon Gonzalez arraun elkartearen zuzendaritza batzordeko kideak, baina, adierazi du aurtengoan ere eskarmentu gutxiko kirolariak dituztela. «Kostata, baina jendea badugu. Baina asko hutsetik hasi dira traineruan. Ontzi txikietan aritutakoak dira etorri diren hainbat, baina batel edo trainerilla batean aritzea, eta traineruan lehiatzea, ez da gauza berbera. Erakutsi behar zaie, eta badugu lana». Gonzalez iragarri du errefortzu bila jarraitzen dutela.



Bihar du ligako lehen estropada Trintxerpe-Illunbek, Donibane Lohizunen. **Josu Z.**

Bizirautea da Trintxerpe-Illunberen aurtengo erronka

‘Azkuene’ trainerua, aro berrian, bigarrenez aterako da KAE2n lehiatzera. Baina arraun elkartearen zuzendaritza batzordearen kezka nagusia egoitza berria lortzea da. Egungoa eraitsiko dute.

Zaila baita Trintxerpe-Illunbe bezalako talde txiki batera arraunlariak erakartzea. Baina ez da haien arazoa bakarrik. «Taldea bat baino gehiago gu bezala daude, arraunlari falta dute. Hitz egin dugu hainbat klubetako arduradunekin,

eta pandemiaren aitzakiarekin-edo baidirudi jende asko urrundu egin dela kirolek, edo arraunetik». Datu bat eman du Gonzalezek: pandemia aurretik Gazte Mailako arraunlari zirenetatik, batek berak ere ez du taldean jarraitu. «Utzi

CIFP – BLAS DE LEZO – BHII



GOI ETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK
NABIGAZIOA- MAKINAK - URPEKARITZA

BOGA!

Eman izena telefono honetara deituz: 943 40 41 70
blasdelezo@pasaiaeskola.net



egin dute. Gazte kuadrilla ona genuen, baina jada ez daude arraunean. Haien atzetik ibili gara jarraitzeko konbentzitu nahian, baina ezin. Ikusi beharko da zer ari garen gaizki egiten jendea urruntzeko». Uretan dute *Azkuene*. Hori baliatu behar dute etorkizuneko arraunlariak erakartzeko.

EGOITZA

Kirol arloan trainerua ateratzea erronka nagusi izan bada ere, Trintxerpe-Illunbek badu garrantzitsuagoa den beste arazo bat: aurtentzen, egoitzarik gabe gera daiteke. «Kluba, dagoen lekuan, desagertzera doa. Pasaiaiko Udalarekin negoziatzen ari gara lokal berri bat eskuratzeko aukera».

Izan ere, Kaiko Herreran du egoitza Trintxerpe-Illunbek, eta inguru horren berrantolaketatik haien egoitza botako lukete, besteak beste. Pasaiaiko Portu Agintaritzarena da eremu hori, eta Gonzalezek adierazi du haiekin hitz egin duela klubak, baina erantzunik ez dute jaso: «Gurekin ez dute hitz egin nahi horretaz. Udalarekin ari gara negoziatzen. Hau da, gure esku ez dauden gauza asko sortu zaizkigu, eta oso arduratuta gaude. Ez dugu batere argi zer gertatuko den. Klubaren etorkizuna dago jokoan».

Ikusi beharko da aurtengo udan nola dabilen trainerua KAE2n. Baina kirol elkartearen arduradunek fokua egoitza berriaren gaian dute jarrita batez ere. Egoitzarik gabe, ez legoke klubik. Lan handia dute aurretik. ✕

KAE2 LIGA



Xabier Agirre
50 urte. Donostia.



Ander Andonegi
19 urte. Donostia.



Mikel Arenas
18 urte. Donostia.



Jon Arregi
25 urte. Andoain.



Unai Dieguez
19 urte. Donostia.



Unai Dominguez
20 urte. Donostia.



Aritz Etxezarreta
17 urte. Pasaia.



Naim Ezzoubair
18 urte. Donostia.



David Iglesias
47 urte. Pasaia.



Xabier Medina
18 urte. Hernani.



Eneko Mindegia
20 urte. Errenteria-Orereta.



Alejandro Ortiz de Zarate
35 urte. Pasaia.



Beñat Ouviaña
20 urte. Pasaia.



Jose Antonio Pereira
48 urte. Pasaia.



Oier Preciado
19 urte. Pasaia.



Erik Puy
31 urte. Donostia.



Julen Rico
22 urte. Donostia.



David Sanchez
21 urte. Errenteria-Orereta.

Entrenatzailea: **Jose Antonio Pereira**

Estetika mundua zure esku

www.naiuestetika.com

info@naiuestetika.com

[f naiuestetikapagina](https://www.facebook.com/naiuestetikapagina)

[@naiuestetika](https://www.instagram.com/naiuestetika)

Astelehenetik ostiralera:

10:00-20:00

Larunbata: 10:00-13:30



naiu
estetika

89m²-ko espazio atsegin bat tratu guztiz personalizatuarekin

Arrandegi kalea 4, 20110 Pasaia (trintxerpe)

[943 53 84 24](https://www.instagram.com/naiuestetika) [656 73 19 47](https://www.instagram.com/naiuestetika)



ERASO SEXISTA,

HOMOFOBO,

XENOFOBO

ETA TRANSFORIK

GABEKO JAIK

NAHI DITUGU!

ANE MENDIZABAL SARRIEGI
HONDARRIBIA

Nola hasi zinen epaile lanetan?

Arraunlari nintzenezan epaileen lanari erreparatu nion. Arraunlarien postutik gehien ikusten den irudia da. Nazioarteko estropadetako epaileak begiztatu nituen eta nire buruari egunen batean hor egon nahi nukeela esan nion. Eta hementxe nago.

Nola gogoratzen dituzu lehenengo egunak?

Hasi nintzenezan ezberdina zen dena. Orduan, epaileei jarraituz ikasten genuen, egiten zuten lanari erreparatu. Ez zen azterketarik egin behar baina 2017tik gauzak aldatzeko beharra ikusi genuen. Seriotasun aldetik, gure artean ezberdintasun handia zegoela ikusi genuen. Orain azterketa bat gainditzea beharrezkoa da epaile izateko.

Euskadiko Arraun Federazioan epaileen bozeramailea zara. Zehazki zein da egiten duzun lana?

Estropada bakoitzean, modalitatearen arabera (batelak, trainerillak, traineruak edo aulki mugikorra), epaile kopuru bat dago, beharrak ezberdinak baitira. Bozeramaile edo lehendakariaren lana, teoriarik, epaile denei egokitu zaien funtzioa betetzen ari direla ziurtatzea da. Baina errealitatea beste bat da. Ero moduan ibiltzen zara eta helmugako epaile gisa amaitzen duzu. Uneoro elkarteekin, ordezkariekin eta antolatzaileekin kontaktuan egon behar zara. Oinarritzeko pertsona da, arduraduna. Dena ondo aterako dela bermatzen du.

“Epaileak pelikulako gaiztotzat gaituzte”

UXUE ZABALA

EPAILEA ETA KUDEATZAILEA

Hondarribiarra 2008an hasi zen epaile lanak egiten, eta ordutik, hainbat federaziotan lan egin du. Estropadetako epaile izateaz gain ETE eta KAE elkarteetan kudeatzailea da.

Arraunlaria ere izan zinen. Ezaugarri garrantzitsua al da?

Arraunlari izan garenok enpatia gehiago izaten dugu egoera askotan. Hala ere, niretzat ez da ezinbesteko ezaugarria. Arraunean ibili izanak laguntzen du, baina oso epaile onak daude arraunlari izan ez direnak.

Estropada batean, zer epaile postu daude?

Lehendakaria batetik; bestetik, helmugako epaile izaten da, denborak hartzen dituen; irteerako epaileak ere badaude, bat uretan irteera ematen duena da, eta lehorretik ontzi guztiak lerrokatuta ateratzea bermatzen duena da bestea. Tosta finkoan batzuetan pertsona berak egiten ditu bi lan horiek. Gero ere kontroleko epaileak daude, ontzietan doazenak zerrandan izena emanda dauden kirolariak direla egiaztatzen dutenak. Tosta finko estropadetako ziabogetan ere izaten dira epaileak.

Kasu egiten al dute arraunlariek?

Ez, inoiz ez, eta nekatu egiten du horrek. Pareta bati hitz egiten diogunaren sentsazioa izaten dugu askotan. Oso orokorrean hitz egiten ari naiz, baina oro har uste dut gurekiko errespetua ez dela oso altua. Lehen esan bezala, zenbait urtetan seriotasuna falta izan zen gure aldetik, baina gauzak aldatzen doaz eta kasu egi-

COEXPE
COOPERATIVA DE EXPORTADORES
DE PESCADO DE GIPUZKOA
GIPUZKOAKO ARRAIN
ESPORTATZAILEEN KOOPERATIBA

Portu aldea, 1. lonja. administracion@coexpe.es
Tel.: 943 39 91 60. Faxa: 943 39 68 17

Lete
itzulpenak
www.lete.net

administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net
www.lete.net



Hondarribiarrak hamahiru urte daramatza epaile izaten. **A. Mendizabal**

teko ordua dela uste dut. Arraunlarien artetik ohiko aitzakia 'ez dugu entzuten' izaten da.

Zer da epaile izatearen zailena?

Zailena uretako epailearen lana dela esango nuke. Tentsio handiko momentua da. Kontuz ibili behar dugu, epaileak esaten duenak eragin zuzena baitu estropadan. Uretan jokatzeko da dena. TKeren ligetan [Eusko Label eta Eusko-Tren], adibidez, telebista dago eta gailu elektronikoak daude. KAE eta ETE ligetan, berriz, gure hitza da balio duena. Berez, kasu egin beharko lukete, baina entzungailutik [patroiek entrenatzailearekin hitz egiteko duten aparailutik] entrenatzaileak kale onean doazela esaten

KABALA
 etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak

943 53 57 51 / 605 76 52 14
 Erdiko kalea 16. Errenteria. kabaladenda@gmail.com

ETXERAKO ZERBITZUA
 AUTOZERBITZU GORROGAILUA
 ILEAPAINDEGIA ALERRENKO HITZORZUA

Pacheco Izeta
 Loredenda

Traineru eta lore, beti kolore!

www.pachecoizeta.com
 943 49 18 68
MAMUT
 merkatalgunea
 Diartzun

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo. San Pedro.
 Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

BOGA!!
LARRAÑAGA
PROIEKTUAK

ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUAK ETA ABAR...
 INMOBILIARIA ZERBITZUAK

www.larranaga-proiektuak.com

@larranaga_proiektuak
 Larrana Proiektuak

Talaia industriagunea P-1, 8. lokala. OIARTZUN - Tel.: 943 558 104

diete adibidez, benetan hala ez de-
nean. Momentu zaila izaten da.

Zein da une honetan estropadetako epaileen egoera?

Oso epaile gutxi gaude, eta estropa-
da guztietara joaten ari gara. Azaro-
an hasten gara lanean aulki mugiko-
rreko distantzia luzeko estropade-
kin, eta abuztu amaieran edo
irailean, Kontxaren ondoren, buka-
tzen dugu. Atsedetik ez dugu, eta
gure lan pertsonalarekin uztartzea
zaila izaten da. Inor ez da epaile
izatez bizi. Borondatezko lana da, eta
estropada gehiegi dira gauden epai-
leertarako.

Beraz, epaile gehiago behar dira, ezta?

Bai, gehiago behar genituzke eta de-
netik egin dugu dagoeneko. Egun-
karietan elkarrizketak egin eta gure lana
ezagutarazten saiatu gara. Zenbaitetan,
arraunlari izandakoak edo klubetan la-
guntzaile gisa dabilzanak probatzera
animatzen dira. Baina oso gutxitan ger-
tatzen da hori. Arrauna utzi duten
arraunlariak epaile izatera animatuko
nituzke. Kirol honetan jarraitzeko modu
polita dela uste dut.

Epaile izateaz gain, ETE eta KAE elkarte- en gerentea zara. Kudeaketa erronka handia da?

Bai, erotzeko modukoa izan zen hasiera.
Hala ere laguntza asko jaso nuen. Erron-
ka izan zen eta egun, izaten jarraitzen
du. Izan ere, baliabide gutxi dituzten el-
karteak dira. Hortaz gain, bestelako zail-
tasunak daude. Baina zailtasunak alde
batera utzita, oso polita izaten ari da.



Uxue Zabala epaile lanetan. **Rem Banyoles**

**«Arrauna utzi duten
arraunlariak epaile izatera
animatuko nituzke»**

**«Arraunlariak kasurik ez
egiteko aitzakia 'ez dugu
entzuten' izaten da»**

Iazko urtea izugarria izan zen,
gehienbat traineruen artean egon
zen lehiakortasunagatik. Oso zirra-
ragarria izan zen. Klubetan, ordea,
tentsio handia egon zen eta gerente
gisa egoera kudeatzen eta klub guz-
tiak lasaitzen saiatu nintzen, bakoit-
zak bere lekua duelako eta denek
garrantzi bera dutelako. Hor kontu-
ratu nintzen epaile bezala pelikula-
ko gaiztoa nintzela, azken batean bi
postuetan funtzio berbera izaten
saiatzen naiz. Hau da, dena kudeatu,
objektiboa izan, eta denek leku bera
izatea nahi dut. Kurioso da.

Aurten badago berritasunik?

Ikusi dudak guztiagatik, oso ga-
rrantzitsua da denborak aparailu
teknologiko baten bidez hartzea.

Epaileon eskua azkarra da, baina
pertsonek gara. KAEn eta ETEn ez dugu
dirurik Traineruen Kluben Elkarte-
an [TKE] bezala dena informatizatua izate-
ko, baina aurkitu dugu *finish* bat [bideo-
finisha] edukitzeko modua. Aurten
pauzu hori emango dugu. Ni izango naiz
horren arduraduna; zehazki emaitzen
kudeaketaz arduratuko naiz. Guztiz ob-
jektiboak izango dira denborak aurre-
rantzean. Bereziki, horrelako gauza txi-
kiak zuzentzen saiatu naiz. Epaile izate-
ak asko lagundu dit beharrak ikusteko
unean.

Aparailu teknologikoek lana errazten dute, beraz.

Hein batean, bai. Askoz ere errazagoa da
gailu horiekin lan egitea, baina aldi bere-
an presioa areagotzen da. Egitekoak oso
ondo egin behar dituzu. ✕

MAITEXA
TABAKOAK-OPARIAK

Aurrera Hibaika!



Bizente Elizegi, 3 . Errearteria . 943 51 21 10



**Asesoria
Elicegui, s.a.**

www.asesoriaelicegui.com

Nafarroa Etorbidea, 69.

Errearteria

info@asesoriaelicegui.com

943 51 76 45  722 24 48 91

EKAINA

19	San Pedroko bandera	San Pedro	KAE1
19	Hernaniko bandera	San Pedro	ETE
25	Donibane Lohizuneko bandera	Donibane Lohizune	KAE2
25	Donibane Lohizuneko bandera	Donibane Lohizune	ETE
26	Zumaiaiko bandera	Zumaia	KAE1
26	Zumaiaiko bandera	Zumaia	ETE

UZTAILA

2	Bilboko bandera	Bilbo	Eusko Label
2	Bilboko bandera	Bilbo	EuskoTren
2	Castroko bandera	Castro Urdiales	KAE1
2	Castroko bandera	Castro Urdiales	ETE
2	Mutrikuko bandera	Mutriku	KAE2
3	Fabrika Bandera	Donostia	Eusko Label
3	Fabrika Bandera	Donostia	EuskoTren
3	Elantxobeko bandera	Elantxobe	KAE1
3	Donostiara bandera	Donostia	KAE2
9	Coruñaiko bandera (1. jard.)	Coruña	Eusko Label
9	Coruñaiko bandera (1. jard.)	Coruña	EuskoTren
9	Pasaiako bandera	Donibane	KAE1
9	Portugaleteko bandera (1. jard.)	Portugalete	ETE
9	Portugaleteko bandera (1. jard.)	Portugalete	KAE2
10	Coruñaiko bandera (2. jard.)	Coruña	Eusko Label
10	Coruñaiko bandera (2. jard.)	Coruña	EuskoTren
10	Portugaleteko bandera (2. jard.)	Portugalete	ETE
10	Portugaleteko bandera (2. jard.)	Portugalete	KAE2
16	Orioko bandera	Orio	Eusko Label
16	Orioko bandera	Orio	EuskoTren
16	Marina Cudeyo Bandera	Pedreaña	KAE1
16	Marina Cudeyo Bandera	Pedreaña	ETE
17	Petronor Bandera	Zierbena	Eusko Label
17	Edinor Bandera	Zierbena	EuskoTren
17	Orioko bandera	Orio	KAE1
23	Sestaoko bandera	Sestao	Eusko Label
23	Trintxerpeko bandera	Trintxerpe	KAE1
23	Errenteria Hiria Bandera	Errenteria-Oreeta	ETE
23	Trintxerpeko bandera	Trintxerpe	KAE2
24	Santurtziko bandera	Santurtzi	Eusko Label
25	Euskadiko Traineru Txapelketa	Lekeitio	
30	Getxoko bandera	Getxo	Eusko Label
30	Getxoko bandera	Getxo	EuskoTren
30	Camargoko bandera	Camargo	KAE1
30	Camargoko bandera	Camargo	ETE

30	Astilleroako bandera	Astillero	KAE2
31	El Correo Bandera	Lekeitio	Eusko Label
31	EuskoTren Bandera	Lekeitio	EuskoTren

ABUZTUA

6	Mapfre bandera	Hondaribia	Eusko Label
6	Mapfre Bandera	Hondarribia	EuskoTren
6	Ondarroako bandera	Ondarroa	ETE
6	Ondarroako bandera	Ondarroa	KAE2
7	Getariako bandera	Getaria	Eusko Label
7	Getariako bandera	Getaria	EuskoTren
7	Hondarribiko bandera	Hondarribia	KAE1
7	Txingudiko Bandera	Hondarribia	ETE
7	Errenteriako Ikurrina	Errenteria-Oreeta	KAE2
13	Ondarroako bandera	Ondarroa	Eusko Label
13	Ondarroako bandera	Ondarroa	EuskoTren
13	Plentziako bandera	Plentzia	KAE1
13	Castroko bandera	Castro Urdiales	ETE
13	Castroko bandera	Castro Urdiales	KAE2
14	Caixabank Bandera	Castro Urdiales	Eusko Label
14	Caixabank Bandera	Castro Urdiales	EuskoTren
15	Castroko bandera	Castro Urdiales	KAE1
20	Zarauzko bandera (1. jard.)	Zarautz	Eusko Label
20	Zarauzko bandera (1. jard.)	Zarautz	EuskoTren
20	Zarauzko bandera	Zarautz	KAE1
20	Zarauzko bandera	Zarautz	ETE
20	Santoñako bandera	Santoña	KAE2
21	Zarauzko bandera (2. jard.)	Zarautz	Eusko Label
21	Zarauzko bandera (2. jard.)	Zarautz	EuskoTren
21	Bilboko bandera	Bilbo	KAE1
21	Ane Aizpururen omenezko Bandera	Bilbo	ETE
27	Aresko bandera	Ares	Eusko Label
27	Colindresko bandera	Colindres	KAE2
28	Boiroko bandera	Boiro	Eusko Label
28	Erandioko bandera	Erandio	ETE
31	Kontxa: emakumeen sailkapena	Donostia	

IRAILA

1	Kontxa: gizonen sailkapena	Donostia	
4	Kontxako Bandera (1. jard.)	Donostia	
11	Kontxako Bandera (2. jard.)	Donostia	
17	Bermeoko bandera (+play-off)	Bermeo	Eusko Label
17	EuskoTren Ligako play-offa	Bermeo	EuskoTren
18	El Corte Ingles Bandera (+ play-off)	Portugalete	Eusko Label
18	EuskoTren Ligako play-offa	Portugalete	EuskoTren

ZURE SEAT ETA VOLSKWAGEN
TALDEKO ZERBITZU OFIZIALA
ERRETERIAN

Ongi etorri
Ayerdi Motorrera

Gure bezeroei zerbitzua ematen
esperientzia handia dugu, eta Ayerdi
Motor erreferentzia da autoen salmentan,
banaketan, eta autoen konponketa
zerbitzu ofizial bezala Lezon.



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK



ESPEZIALISTAK

- AUTO BERRI ETA AUKERAKOEN SALMENTA.
- MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA.
- TXAPA ETA MARGOKETA TAILERRA.
- ORDEZKATZE AUTOA.

INSTALAKUNTZAK: Jaizkibel hiribidea, 1 - LEZO. Tel. : 943344525
ayerdimotor@ayerdimotor.com - www.ayerdimotor.com



MERKEALDIA

DONOSTIA

Jose M^a Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49

ERRETERIA

Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11

IRUN

Mendibil M.G. • Tel.: 943 63 99 01

www.multiopticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen